



Ohiko gibel-jateak eta Otsolar-en dantzariak iragarri dituzte Inauteriak

LIZARTZA ▶ Antzerkia saioa ere eskaini zuten atzo
herriko plazan; datorren asteburuan hasiko da festa ▶ 6



Txekorraren inguruan, atzo eguerdian, herriko plazan, herritarrek eginiko parodia. JAIONE ASTIBIA



AHTk «eragingo dituen kalteei» buruz, kanpaina

ANOETA ▶ Atzo burutu zuten ekitaldia
zubibidearen kokalekuan; proiektuaren
«informazio eza» salatu zuten ▶ 4



**Pertsonak hezitzea
eta osatzea
gure erronka**

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

2-16 urte bitarteko hezkuntza

Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza
- Kalitatezko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)
943 69 20 58 (Txermin auza • Villabona)
943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)

billabona@ikastola.net

Polimeroen injenieritza + AURREMATHIHAULA
etorkizuna bideratuko dizu ZABALIK

uni.leartik.com

Jardunaldi irekia
Otsailaren 18an Larunbata 10.30etan

lea artibal

Arrieta Euzakel, 19. 48270 Martxo-Enena (Bizkaia) Tf. 94 616 90 02 Fax. 94 616 90 60 info@leartik.com uni.leartik.com

LANDER ETXEBERRIA ▶ (VILLABONA)

1981eko otsailak 13, inoiz ahaztuko ez dugun eguna

Denborarekin dena ahazten dela diote askok, baina bistan da ez dela beti hala gertatzen, 1981ean oraindik oso gaztetxoak banintzen ere, oroimenean gordeta geratu baitzaizkit Joxe Arregi Zizurkilgo semearen tortura eta erailketaren inguruko gertaerak. Izan ere, bere gorpuzaren argazkietan agertzen ziren ubeldura eta erredurek inpunitate osoz eginiko krudelkeria basati baten aurrean geundela erakusten ziguten.

Garai hartan ere, gaur egun gertatzen den bezalaxe, bertsio ofizialek ukatu egiten zuten atxilotuak torturatuak izan zirenik. Joxe Arregiren kasua nabarmenegia izan zen hala ere, eta hasiera batean polizia buruak tratatu txarrik egon ez zela baieztatzen bazuen ere, ezin izan zioten ildo horri denbora luzeegiz eutsi. Ondoren zabalduak ikerketak Joxe torturatuak izan zela frogatu zuten, baina epaiketan bi polizia bakarrik izan ziren zigortuak, galdeketetan ia 70ek parte hartu arren. Eta a ze burla! Epailak hilabete gutxitako zigorra agindu zuen polizia hauentzat, eta hilabete bakar baten buruan espetxetik irten ziren. Duela ez asko, gainera, egindako merituengatik edo, mailaz igo dituzte inspektore eta komisario izendatuz. Inolako lotsarik gabe sendiari, Zizurkilgo herriari eta Euskal Herri osoari maltzurki egiten diote barre.

Eta oraindik ere tortura sistematikoki erabiltzen da. Espainiako estatuan batzuk demokrazia gisa ezagutzen duten sistema politiko hau ezarri zutenetik ia 6000 izan omen dira torturatutako euskal herritarak, azken urteetan egoera berdin-berdin mantentzen delarik. Kopuru hori besterik gabe entzutea erraza izan daiteke agian, baina ez da hain samurra gertatzen horietako bakoitzak polizia-etxean pasatuko zuten infernuan pentsatzea. Poltsa, bainera, elektrodoak, mehatxuak, jipoi etengabeak, bortxaketak, umiliazioak, exekuzio simulazioak... euren bizitza osoan ahaztuko ez duten amesgaiztoa. Baina, jakina, tolerantzia eta giza eskubideen defendatzaile



Joxe Arregi plaza, Zizurkil Behean. I. GARCIA

itxurak egiten dituzten horiek guztiak ez dituzte lagun hauek gatazkaren biktimatza hartuko, horretarako espainiar konstituzionalisten bandoan egon beharra baitago.

Espainia tortura erabiltzeagatik nazioarteko erakunde esanguratsu askoren aldetik salatua badago ere, hemen ez da ezertxo ere aldatzen; azken finean, torturatzailen babesle eta konplize ugari baitago. Ezinbesteko laguntzaileak epaileak beraien dira, hauek baitira torturatuak aztarnak aurrez aurre ikusi arren, beste alde batera begiratu eta txintik esaten ez dutenak. Are gehiago, poliziaren praktika hau ikertu beharrean, tarteka torturatuak izan denaren kontra egitera ausartzen dira. Azken aste honetan Unai Romanoren kasuak argiki erakutsi digu hori. Euskal jendarteak soberan daki zer egin zioten Unairi; baina, hala ere, epaileak lotsagabekeri handienaz bere buruari egin ziola dio, eta bide batez Unairen aurka egiteko bidea zabalzen dio poliziari. Zer motatako justizia es-

pero daiteke, beraz, Audientzia Nazionalaren aldetik? Hitz politenak ere bakar-batzuen ahotan faltsuak eta ustelduak dirudite.

Eta antzeko zerbaite esan daiteke komunikabide eta politikari gehienek aldetik dagoen jarreraz, izan ere, poliziek euren isiltasuna babes gisa hartzen dute tortura erabiliz jarraitzeko. Isiltasun eta inplikazio falta hau ere eta mingarriagoa gertatzen da bere burua abertzaletzat duen alderdi baten aldetik etortzen denean. PNVk hainbat gertaeren aurrean ordu edo minutu gutxi behar izaten ditu bere makinaria guztia martxan jartzeko eta ezker abertzalearen aurka jotzeko, baina beste batzuetan, berriz, ezinean ibiltzen da —entzun al duzue aste honetan Unai Romanoren kasuaren aurrean Josu Jon Imazren salaketa gordinek?—. Bai zera!

Tira Joxe, egon hadi lasai, Euskal Herriak aske izan bitartean ez baitirudi amore emateko asmorik duenik. Agur eta ohore, lagun maitea.

TOLOSALDEKOHITZA. INFO ▶

**Inauteriak
gainean direla,
mozorroei
buruz**

Ni katuz mozorrotuko naiz!
->

Pailazoz mozorrotuko gara etxean. Betikoa da, baina politena ere bai.
->

Zaila izaten da mozorro orijinala eta dibertigarria asmatzea. Ideiarik ba al duzue?
->

Aurten bertsolariz mozorrotzea onena, karroza batean tabladua jarri eta bertso saio bat egitea litzake la ostiyakua! Bertsolariz jartia erraza da, koadrozko kamisa eta purua eskuan.
->

Aurten primeran tokatzen dira Inauteriak! Beste urtean beti azterketan egoten ginen, eta oraingoan mundialak izango dira! Ikusiko duzue gure koadrilak prestatu duena... Adi egon! Jejeje...
AZTERKETARIK EZ ▶

Beste hainbat herritara joan den bezala, Tolosara ere agertuko al da Aresoko Olenztero?
OLENZTERO ▶

Hori inbidia hori! Kanpoan ari naiz ikasten eta aurten ezin izango dut Tolosan egon Inauterietarako! Hau pena! Ondo pasa! Ea nik HITZAREN bidez Internetez argazkiak ikusteko aukera izaten duan!
->

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

**SHANTI
KIROLAK**
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ESANAK ▶



GARBIÑE BIURRUN
EPAILEA

«Etxebizitzaren arazoari buruzko gogoeta sustatzea da gure asmoa»

«Manifestua Eusko Legebiltzarreko talde guztiei igorriko diegu gure eskaeraz ohartzeko»

'Berria' (2006-02-07)

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun zentroa: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun zentroa: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerbitzua: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarain autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE



Ezkatukoa agerian

Goitizena edo izen artistikoa Mark Twain zuen. Izena Samuel Langhorne Clemens. Idazlea. Estatu Batuetakoa. Gizon eta emakume txikien amets handiak hiltzen diren lurrekoa, amerikarra hain zuzen. Hark behin hau idatzi zuen: «Pertsona ilargiaren modukoa da, beti dauka inori azaltzen ez dion alderdi ilun bat».

Ez dakit denok dugun alderdi ilun bat. Pasadizu edo gertaera ilunen bat dugula esango nuke nik. Joan zen asteburuan gisa horretako pertsona bat ezagutu nuen Azpeitian. Bere bizitzaren berri ez ziola inori kontatzen hitz eman zidan. Inori ez omen zitzaion inporta. Ez omen zitzaion ateratzen. Esan nion prozesuak ez zuela derri gorrean sartu eta atera izan behar beti. Dena kanporatzea ez zela beharrezkoa baina ezer kanporatzen ez bada barruan leherketa bat gerta daiteke. Barruan gehiagorako lekuri ez denean eztanda egiten badu ez nuke haren zipristinek harrapatzerik nahi. Irribarre egin zien nire hitzei. Zer-beza batzuk gainean filosofo jartzen gare-

nean... gauza onik ez. Alferrrik ari nintzela esan zidan.

Ez nuen amore eman. Haren konfiantza nireganatuko nuela apustu egin nion. Orduan barre egin zidan. Biharamunean ez nintzela harekin oroitu eta nik esandako hitz oro haizeak eramango zuela xuxurlatu ondoren tabernaz aldatu genuen. Zuei hau kontatu eta berari e-mail idaztera noa. Ea zer edo (e)zer kontatzen duen.

Samuel Langhorne Clemens horrek ere bere burua Mark Twain izenpean ezkatatu zuen. Zerbait iluna agian? Hark hala ere gauza asko eta asko irakurleei kontatu zituen. Gertuko lagunei esateko beldur agian?

ARGAZKI ZAHARRA ▶



Tolosaren lehendabiziko irudiak airetik, 1930-39 artean

Erredakzioa ▶ Miarrizteko aireportutik irten zen hegazkin hura, eta Tolosari airetik hartutako lehendabizikoetako argazkiak atera zituzten hegaldi hartan. XX. mendeko 30. hamarkada zen; 1930 eta 1939 bitartean, Jose Maria Tuduri Esnalen *Argazkiak Tolosa*

(1920-1945) liburuak jasotzen duen moduan. Honako hau da irudi haietako bat. Orditik gaur arte Tolosa nola aldatu den ikus daiteke bertan, batez ere egun Izaskun auzoa dagoen gunea eta zezen-plazaren ingurua. 'ARGAZKIAK TOLOSA (1920-1945)'

iragarki laburrak ▶

<p>LANPOSTUAK Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jauriaritza, ikastebeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782. Haurtzaindegi publikoak. zainzaileak, hezitzaileak... behar dituzte haurtzaindegi publikoak. 943 313782.</p>	<p>Peoiak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782. Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 313782. Sukaldariak eta sukaldari</p>	<p>Iaguntzaileak. Postu libreak Eusko Jauriaritza. 943 313782. Suhiltzaileak, Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak. Informazioa 943 313782 telefono zenbakian. Haur eskolak. Haur zainzaileak eta haur hezitzaileak behar dira. 943 313782.</p>	<p>Administrari iaguntzaileak. Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Lanaldia astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Langleiak. Obratako langileak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak behar dira udaletan. 943 313782.</p>
--	---	---	---

ANOETA ▶ AHT

IMANOL GARCIA

«Abiadura Handiko Trena (AHT) begi-bistara Basagain azpitik, Gaztetxea baino pixka bat gorago, Gain-Berri etxearen parean aterako litzateke, segidan Isastiren magalean baneratu eta Hernialden berriro ateratzeko. Malda batetik bestera igaro ahal izateko zentralaren eta Alkizako errepidearen gainean 125 metroko zubibidea eraikiko da, 20 metroko altuerara eta 14,5 metroko zabalarekin. Honen zama jasateko izugarritzko lau zutabe eraikiko dituzte bertako soro eta belazeak kaltetuz». Horrela deskribatzen dute Alkizako errepidearen gainetik igaroko den zubibidea, AHTri buruzko informazio kanpaina burutzen ari diren herriko gizarte eragileek.

AHT Gelditu! Elkarlana, Anoetarrok Auzolanean herri plataforma, Anoetako Segi eta Anoetako Gazte Asanblada atzo elkartu ziren zentralaren ondoan eta Gain-Berri etxearen aurrean. AHTren proiektuan ez bada zehazten ere, planoaren arabera ziurtzat jotzen dute etxea eraitziko dutela. «Jabeari ez diote ezer esan», azaldu zuen AHT Gelditu! Elkarlanean kide Manu Odriozolak.

Informazio kanpaina burutu dute zubibidearen kokalekuan

Herriko gizarte eragileek AHTren inguruko «informazio eza» salatu eta proiektuak eragingo dituen «kalteak» nabarmendu zituzten atzo, zentralaren ondoan



Gain-Berri etxearen aurrean egin zuten atzoko informazio zabaltze ekitaldia; argazkian, parte-hartzaileek hamaiketako egiten. I. GARCIA

Informaziorik ez izatea ere azpimarratu zuen Antonio Kortajarenak. Isasti mendian lurrrak ditu berak eta azken proiektuaren arabera bertan hondakindegia jarriko dute.

«Ez dut informaziorik jaso», dio Kortajarenak, eta «egun batean etorriko dira eta bat batego obrak egiten hasiko dira, aurretik ezer esan gabe», gaineratzen du. AHTak ez duela onurarik ekarriko dio: «Kalteak bakarrik ekarriko ditu».

KALTEAK ▶

Informazio panel batean AHTk Anoetan «eragingo litzuzkeen kalteak» zehaztu zituzten antolatzaileek.

Faunan, landaterian, paisaian. Inguru guztia porlanez beteko du AHTk eta horrek animaliei, landareei eta paisaiari eragingo dion kalteak aipatzen dira.

Zarata kutsadura. 250 metroko korridorean jasagarria den zarataren muga gaindituko luke AHTk.

Kalte hidrologikoak. AHT proiektuarengatik herriko zentral hidrologikoak ezingo liriteke erabili eta baserrietara iristen diren mendiko urak desbideratzeko arrisku handia dago.

Kutsadura elektromagnetikoa. AHTk neurrigabeko kontsumo

energetikoa dakar. Horri erantzuteko behar diren elektrifikazio sistemak hormona eta proteinen ekoizpen mekanismoan, minbizietan, leuzemietan eta sistema immunologikoen eragina dauka.

Kostu ekonomikoa. Anoetan egingo liritekeen obrak 92 milioi euro inguruko kostua izango lukete. Diru hori AHTn baino, beste hainbat arlotan inbertitzeko eskatzen dute.

Obrak. Lanek irauten duten bitartean izugarritzko kaosa sortuko dutela adierazten dute: zarata, kamioien mugimenduak, leherketak... 57.200 m²-ko lur azalera kaltetuko da eta ondorioz dozenaka herritarrek eta lurren jabeek zuzeneko kalteak jasango litzuzkete.

Gizarte eredu ezbaian

«Udalaren aldetik dagoen informazio falta» salatzeko eta AHTk eragingo dituen «kalteen» berri emateko egin zuten deialdia atzo. Hogeitabost bat lagun bildu ziren bertan eta informazio panel bat jartzeaz gain, txalapartarien eta bertso-larien saioaz gozatzeko aukera izan zuten. Hamaiketako ere ez zen falta. Ondoren mendi

bueltan egin zuten zubibidea nondik nora joan daitekeen ikusteko. Ekitaldiak amaitzeko eskualdeko sagardotegi batean bazkaldu zuten.

Herenegun egindako hitzaldian «Anoetan AHTk eragingo dituen kalteen» aurkezpena egin zuten. «Jendeak asko eskertu zuen», zioen Odriozolak, «proiektuaren bidez garbi erakusten zelako zein diren herriari jasango dituen kalteak».

AHTren proiektua egiteko justifikaziorik ez dagoela salatu zuen Odriozolak. «Garraio mota hau gizarte eredu batek butzatzen du eta AHT Gelditu! Elkarlanetik gizarte eredu hori zalantzan jartzen dugu».

Anoetako gizarte eragileek informazio kanpainarekin jarraitzeko asmoa dute, eta herriko beste puntu batzuetan aste-buru honetan egindako ekitaldiak errepikatuko dituzte.



LASKORAIN IKASTOLA

'Kalitateko Heziketa Euskalduna eta Cleanitza'



Euskodi
2004



Euskaraz bizi

tolosa@ikastola.net
Tel.: 943 697 122

www.laskorainikastola.net





Uzturpe Ikastola
3-16 urte

Ikastetxe bat baino gehiago udal haur eskola udal ludoteka ikastola

ATEAK ZABAIK EGUNA

Otsailak 14 arratsaldeko 18:00etan

Bideo emanetia Antolaketa eta Proiektuak Gelen erakusketa



Euskodi



Uzturpe Ikastola
Euzko C. 20430 Irujoa Tel: 943 67 12 34 Fax: 943 67 36 32
e-mail: ikastola@uzturpe.net



Villabona - Kultura



HAUR ANTZERKIA

HANKATXO TALDEA

"cantervilleko MAMUA"

OTSAILAK 12 - Igandea
Arratsaldeko 17:00etan
GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)



ATLANTA 1996



SYDNEY 2000



ATENAS 2004



TOLOSA 2006

Audiren kontzesionario berri bat sortu da Tolosan



AUTOWAG - TOLOSA altzindari izateko asmoz sortu da, aro berriaren eskakizunel erantzuteko gai diren idela eta kontzeptu berriekin.

AUTOWAG - TOLOSAren instalazio berriak estrategikoki kokatuak daude, N-1 errepidearen ertzean, gure bezeroentzako sarbide- eta aparkatze-erosotasun guztiekin.

Dimentsio berri bat

Autowag Tolosa

USABAL industrialdea - Tel. 943 67 35 81 - 20400 Tolosa



LIZARTZA ▶ INAUTERIAK



Otsolar dantza taldekoek dantza-saioa eskaini zuten plazan. JAIONE ASTIBIA



Gibel-jatea egiteko baliatu zuten egurtea. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Txekorraren ausia erabaki eta epaia plazaratu dute Lizartzan: «Hurrengo igandean inauteriak ospatzeko egingo dugun bazkarian jenez, bertako herritarrentzat izan dadila txekorra».

Halaxe deliberatu berri dute Lizartzako herri ordezkariak, txekor baten inguruan gertatutako desadostasuna kausa dela, herriko plazan burututako epaketan: herriko baserri bateko aita-semeak, etxeko txekorrik ederrena hartu eta feriara zeramaten saltzera, etxeko emakumeengandik «ondoren zuzenean etxera etortzeko», agindua jasota. Baina, non feriara joanen ziren, zuzenean Txomiñene tabernara joan eta musean jokatu zuten. Iruzurra zela, ez zela,azienda batena zela, bestearena zela, herriko agintariengana jo zuten ausia konpontzera. Hauek beren epaia bota zuten: «Ez batzuentzat, ez besteentzat. Herriarentzat izanen da». Baserriko aziendarik ederrena galdu eta etxean komeria galanta gero.

Baina herritarrak hagitz gus-tura gelditu dira epaiarekin: aurtengo Inauterietarako jakia prest baitute!

Txekorra herriarentzat banatuz

Lizartzako Inauteriak hasi dira, Otsolar dantza taldearen ikuskizuna tarteko



Lizartzarrek txekorraren parodia egin zuten. J. ASTIBIA

Eta ospakizunetan eta dastaketetan sartuta daude dagonekoz Lizartzakoak: herriko plazan, gibel-jatea egin baitute atzo berean, epaia irten bezain laister, eta Otsolar dantza-taldearen emanaldia ikusi bertean.

Pestaren iragarleak esan zuenez «aro herriko XXIII. Inauteriak» atzo hasi ziren. Herrian bertako biztanleak protagonista izanik, txekorraren parodia egin zuten, eta ondoren, benetan, tipula eta gibel zati goxozko pintxoak banatu zituzten bertan bildu ziren ikusleen artean, zato-ardoa ere joan-etorrian ibili zutelarik.

Bitartean Otsolar dantza taldeak saio paregabea eskaini zuen, neskek eta haurrak aritu ziren aurtengoan dantzari; herriko musikariek osatutako taldearen doinuak, hainbat eta hainbat dantza mota egin zituzten: *Agurra*, *San Juan*, *Uztai dantza*, *Brokel dantza*, *Zahagi dantza*, koreografia desberdinak... Eta haur ttiek ere *Sorgin dantza* dela eta beste eginenez, ikuskizun koloretsu eta arin-arina erakutsi zuten.

Datorren astebururako txekorra, dantza, txaranga eta *ijitoak* ere prest dituzte. Mozorrotzen ez dena, «*ijito* erreketarako hautagai» izanen omen da.

AZOKA ▶

Izotzaren eta hotzaren eragina nabaritu da

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka lasaia izan zen goizeko lehenengo orduetan, baina eguzkiak jotzeari ekin zion ahala, erosle kopuruak ere gora egin zuen: goizaren bukaerarako salmentak ez ziren kaskarrak izan, eta giroa ere hala moduz.

Eskaintza aldetik, barazkien arloari dagokionez, ez zen berrikuntza handirik izan. Ekoizleen hitzetan, egun hauetako izotzak kalte handirik egin ez arren, udaberriko barazkien uzta dexente atzeratzen ari da, eta giroak gisa berean jarraituko balu, kanpo libreko barazkiei, ilarra edo baba modukoiei, kalte handia egitea litekeena omen da.

Baina Berdura plazan izan zen berrikuntzarik, izan ere, aurtengo lehen tomate eta marrubi landareak agertu ziren, eta Atari kalean ere, mimosa zuhaiskak salgai izan ziren.

AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Erromeroa	4,00	6,00
Porru landarea	2,40	-
Udaberrilorea	2,00	-

Bertako produktuak

Intxaurrak	2,50	4,00
Azalorea	1,00	-
Lekak	2,50	3,50

ZUZENKETA ▶

Lor eta Kasu! taldeen kontzertuak datorren larunbatean, hilaren 18an, izango dira Ibarrao Gaztebanean, eta ez bart, atzoko HITZAK zekarren moduan.

hilberriak ▶



Kontxi Murua Unanue

(Joakin Agoteren alarguna)



ATZO hil zen, PASAI ANTÓN, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Asko maite zintuen Arroa Goiko sendiak ez zaitu inoiz ahaztuko.

Hileta elizkizuna, BIHAR ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, Pasai Antxoko SAN FERMIN parroki elizan izango da.

oharra ▶ gorpua Donostiako Errekalde Tanatorioan dago

ARROA GOIAN, 2006ko otsailaren 12an



ESKERTZA ▶

JOXE MENDIZABAL IRIZAR

jaun hil berriaren senitartekoan partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi.

Zumarraga, 2006ko otsailaren 12a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak



ABEL BARRIOLA ▶ PILOTARIA

«Berriro ez nuela jokatu uste nuen, eskua orbainez josita zegoen»

Eskuko gaitz larri baten erruz sei hilabete egin ditu jokatu gabe; sendatzeko epea luzatu arren, itxaropena berreskuratu du, eta bihar itzuliko da jaialdietara

IMANOL MAGRO - BERRIA

Giro alaia dago Labriteko alda-geletan. Eugi, Chafee eta Barriola (Leitza, 1978) —Fernando Goñi geroago iritsi zen— binakako txapelketari buruz ari dira solasean *Berrira*-ko kazetaria sartu denean. Hirurak agurtuta, Barriola galderak erantzuten hasi da, takoak jartzten dituen bitartean. Laurek entrenamendu saio gogorra egingo dute gero Etxanizen aginduetara.

Biharko partida zuretzat «bigarren debuta» dela esan duzu, zortzi urte geroago dena Tolosako Beotibarren hasiko da berriro.

Antzekoa da, urte asko pasatu direla ahaztu gabe, noski. Baina hala da, debut berri baten itxura dauka. Lesioaren erruz denbora asko geldirik egin ostean, galtza zuriak eta Asperen elastikoa janztea oso berezia izango da.

Egun zer duzu gehiago, ilusio ala beldurra?

Beldurra ez behintzat! Ilusio handia eta errespetu pixka bat ere bai. Eskua sendatu zait eta orain arte primeran nabil, hori bai, zuriz janztea beste kontu bat da. Tentsio handiagoa da eta beti izaten duzu beldur psikologiko txiki bat, ondo jokatzen ari zarela eta eskuak ondo erantzuten duen ikusi arte.

Noiz jakin zenuen aurki jokatu behar zenuela berriz ere? Iragan ostiralean entrenamendu on bat egin nuen, enpresari esan, eta astelehenean esan zidaten Tolosan jokatuko nuela. **Zeure burua jokatze gai ikusi zenuenean zer nabaritu zenuen?**

Poza, eta era berean enpresari albiste on bat ematearen lasaitasuna, sei hilabete geldirik egotea ez delako gustagarria.

Astelehenean, Tolosan, kolpea askatzerik izango al duzu?

Baietz espero dut, partida hasten denean ikusi beharko da. Ez dut den-dena ematen hasi nahi, gustuko pilota aurkitzean kolpea askatuz eta txarra datorenean buruarekin jokatuz. Lehenbiziko partidetan ez dut eskua guztiz lehertu nahi.

Fibrosia eskuko gaitz larria da pilotariarentzat, deskriba ezazu zer nabaritzen den.



JOXEMI SAIZAR

FIBROSIA

«Odola ez da hatzetaraino iristen eta oso mingarria da, eskuko ukimena galtzen baituzu»

Fibrosiarekin eskua kanpotik ikusten baduzu ondo dagoela dirudi, ez dagoela gaitzik, alegia. Zera gertatzen da, nire kasuan behintzat, pilota astintzean min egiten zidan, eskuko odol zirkulazioa kaltetuta zegoelako. Ez da odolirik iristen eta horrek min ikaragarria egiten dizu hatzetan. Hasieran eskua hotz baduzu ez duzu deus ere nabaritzen, baina jo eta jo jardun ostean hatzak izugarri minberatzen dira. Mina eta tentsazio desatsegina, pilota astintzean ez duzu ukimenik nabaritzen.

Egin zenuen ebakuntza nahi-

ERREKUPERAZIO LANA

«Une gozoak eta gogorak nahasten dira; sendatze epea luzatzen ari dela ikustea etsigarria da»

ko larria zen, zalantzarik izan al zenuen erabakia hartu arreretik?

Ez, medikuak dena ondo geldituko zela esan zidalako. Hori bai, ebakuntza egin berritan inoiz ez nuela berriz jokatu uste nuen, eskua orbainez bete zegoelako. Baina tira, gero

ENBALAJE INDUSTRIALA egiteko mutil bat behar da iluntzeko 20:30etik aurrera deitu
Tel.: 651 657 982

apurka ondo jarri zen, sendatzeko epea nik eta medikuak uste baino luzeagoa izan arren. **Nolakoak izan dira hilabete hauek? Zure ibilbidean bigarrenez, minaren erruz denbora asko egin behar izan duzu geldirik.**

Hala da, aurrekoan zortzi hilabete egin nituen jokatu gabe. Kirolari batentzat beti da gogo-

rra jokatu gabe egotea, sendatzeko epean memento onak eta txarrak izan dira. Batzuetan animoz lepo egoten zara eta beste batzuetan lur jota, batez ere eskua uste bezain azkar errekupekatzen ez dela ikustean.

Oro har, iazkoa urte oso txarra izan zen zuretzat, lesioek ez zizuten txapelketa bakar bat ere jokatzen utzi.

Ahazteko modukoa izan zen! Eskuko mina inoiz baino larriagoa izan da, eta nire ibilbidean lehenbizikoz arazo fisikoak izan ditut. Izterreko minaren erruz ez nuen buruz buru jokatu, eta gero lau t'erditik eta binakakotik kanpo gelditu naiz, ahaztekoa.

Ernegarria behar du izan txapelketa bat jokatu duzula aurreikustea eta gero ez zarela garaiz sendatzen ikustea, deskriba ezazu.

Desesperagarria da, epeak ez direla betetzen ari ikustea da gogorra. Jokatu nahi duzu, baina eskuak ez du erantzuten.

Buelta asko buruari?

Bai, nahi eta nahi ez beti ematen dizkiozu. Gehienbat errekupeazioa geldoa izan delako; pentsa, nire asmoa lau t'erdiko txapelketarako itzultzea zen, eta ez naiz binakakora iritsi.

Buruari bueltaka bai, eta triapak jaten? Inbidia nabaritu zenuen.

Hasieran ez, eskua gaizki zegoenean neure burua ez nuelako jokatze gai ikusten. Gero, berriz, errekupekatzen joan naitzen heinean inbidia ematen dizu kideak hor dabiltzala ikustea, txapelketatan... baina tira, hortik ere pasatu beharra zegoen.

Hilabete hauetan zeinek jasan du Abelen petraikeria?

Etxe gehienetan bezala etxekok, eta bereziki nire amak gehiena. Pilotari orok du konfiantzako jendea alboan eta eurek ere gaizki pasatzen dute. **Zerbait ikasi duzu hilabete hauetan?**

Lasaitasuna edukitzea eta ezin denean ezin dela onartzen. Etorkizunean askorako balio izango didaten ikasgaiak dira.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmetua duena. Interesatuek deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Iturgina. Iturgin lanetarako laguntzaile behar da. Interesatuek deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Matrikulazio kanpainan bete-betean daude murgilduta ikastebeak. Zer hartzen duzu kontuan seme-alabak ikastebe batera edo bestera eraman aukeratzeko? Sartu eskualdeko egunkariaren webgunean eta eman zure iritzia! ▶

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko otsailaren 12a, igandea ▶ 812. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Larraul. Herri Ostatuaren lehen urteurreneko ospakizunen barruan, haurrentzako txokolate jatea izango da 17:00etan.
Zizurkil. Torturaren aurkako ekitaldien baitan, 09:00etan mendi ibilaldia izango da Joxe Arregi plazatik abiatuta, 13:00etan ekitaldi politikoa Joxe Arregi plazan, eta gero bazkaria Urkamendin.

ERAKUSKETA

Ibarra. *Calcuta: begirada zabalik* erakusketa ikusgai, Kultur Etxean.

ZINE-KLUBA

Tolosa. 19:00etatik aurrera, *La mascara 2* filma izango da ikusgai Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

Bihar
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 35. 112
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Sokari tiraka

IBARRA ▶ Sokatira indarberritzeko Lehen Saiakera Eguna antolatu dute gaur Belabieta kiroldegian; Euskadiko Txapelketan diharduten taldeak ariko dira

ERREDAKZIOA

Sokatirari bultzadaxoa emateko helburuarekin, Lehenengo Saiakera Eguna antolatu dute gaur Ibarrrako Belabieta kiroldegian, 11:00etan hasita.

Izan ere, Ibarrran kirol honek «gorakada nabarmena» izan badu ere, Gipuzkoako eta Euskal Herriko egoera oso bestelakoa dela diote federazioek; hala, sokatira berpiztu aldera, Hego Euskal Herriko herrialde bakoitzean, saiakera eguna antolatzea erabaki dute Gipuzkoako Federazioak nahiz Euskal



Ibarrrako sokatira taldea Izaskunen buruturiko proba batean. HITZA

Herrikoak. Eta, hain justu ere, Gipuzkoan egingo dute lehena, eta Ibarra aukeratu dute horretarako. Bertan, Euskadiko Txapelketan diharduten taldeak ariko dira lehen. Ez dute erretxinarik erabiliko, soilik alde batera tiratuko dute eta denbora mugatuko tiraldiak jokatuko dituzte, hiru minutukoak. Erraztasun gehiago ere izango dute horrela.

Goma gaineko bigarren saio eguna Araban izango da. Lur gaineko biak, berriz, Bizkaian eta Nafarroan jokatuko dituzte, Euskadiko Txapelketako tartetan.



URTE ASKOAN
 Amona Joxepa.

Zure 101. urtebetetzean, zure biloba Larraitz eta Urtzik, maiztasunez.



URTE ASKOAN
 Zorionak Izeba!

Horren alai segi. Iloba bikik.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
 Araba etorbidea, 5 behe - **TOLOSA**
 Udaltzako bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Fleming Ikastetxea.
 Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
 Lehen Hezkuntza Arratzaizainen (6-12 urte)
 Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 14 13
 012277aa@hezkuntza.net

Ernio-bea B.H.I. Villabona
Ernio-bea Ikastetxea.
 Derrigorrezko Bigarren hezkuntza
 Arratzaizainen (12-16 urte)
 Tel.-faxes: 943 69 37 33
 012952aa@hezkuntza.net

SANTA LUZI HEZKUNTZA GUNEA

KALITATEZKO D EREDUA

SAMANIEGO IKASTETXEA

✓ HAUR HEZKUNTZA
 ✓ LEHEN HEZKUNTZA

✓ DBH
 ✓ BATXILERGOAK
 ✓ ZIG gela eta LAN HASTAPEN EGOKITUA

943 65 10 63 943 65 13 87

Orain Zaldibian

Elbarrena industrialdean

Tel.: 943 888 232

Gipuzkoako moztorro dendarik handiena

